



Irati: güne ezinago ederrean, gozamenerako lekü bat!

Bere bizitarzuna eta berezitarzünak begiratü düüan herri batetan plantatürük, jente saldo animaletako turismatik kanpo baratü da Irati. Hala, eüskal bortüez üngüratürük, egonaldi aberasgarria gozatüren düzü.

Irati, gozamenarentako herri bat...

Iratiko oihaneko zühaitzen artean ohatzen dira 35 etxola, ebilzaleentako artebea eta kanpagia bat. Bazterrer ontsa doitätürük, goxotarzünarako apaindürak oro badira, zure egonaldia gozamenezkoa izan dadin, berainezkotarzün, soiltarzün eta anpletarzünez beterik.



Honarat jitez, Iratiko jatetxearen kartieleko sükalartzaren txestatzeko parada badükezü ere, Eüskal Herrian beitaügü gaüza honen adelatzen.



Jatetxea egünoroz zabalik da*
Egüerdi partean
11:30etarik 14:00etara
Eta arratsez 19:00etarik 22:00etara
Leküen hartzeko deit:
05 59 28 55 86

Iratin zure esküko dütüzü ere:

- Janari eta hatü salgia bat
- Libürütegi bat
- Posta zerbütü bat
- Zalditegi bat, üztailan eta agorrikan ebiltan dena

*salbü pausü egüinean



Pau-Pyrénées aireportüa (01:30etara):
Tel. (0033) 559 33 33 00
Biarritz-Pays Basque aireportüa (01:30etara):
Tel. (0033) 559 43 83 83



A63 autobidea (Bordele-Donostia)
5. elkigia, Baiona hegoaldea/Kanbo, eta gero jarraik Kanbo, Donibane Garazi, Donazaharre, Irati

A64 autobidea (Tulusa-Baiona)
7. elkigia, Saliese, eta gero jarraik Salbaterra, Maule, Atharratze, Larraine, Irati

Azaroaren 15a eta apirilaren 15a artean, botüentako kateak beharrezkoak izaten ahal dira.



SNCF tren-eküragia Donibane Garazian
Tel. (0033) 559 37 02 20

ARGIBIDEAK ETA ERRESERBATZEAK:

Tel. (0033) 559 28 51 29 / Fax. (0033) 559 28 72 38
info@chalets.iraty.com / www.chalets.iraty.com



Commission Syndicale du Pays de Soule



Iraty, randonnez à pied en toute liberté!

RCS Toulouse B 387 987 811 - Crédits photos: Chalets d'Iraty - Office de Tourisme de Soule - Fotolia - iStock. Imprimerie de ARCE - 64130 Mauléon - 05 59 28 19 69 - Ne pas jeter sur la voie publique



Bazter ederren gainti eabilteko, honki jin.

Iratiko bazter zabaletan hoinez eabilte ederrik egiteko parada badükezü, bortü gorenen ikusmenaz begiak bazkatzez, Xiberoa bai Baxenabarreko bazterrak eta Orhi altzoan den Larraineko herriari gainetik mirestez, Europako bagadoi handiaren xendak gozatzez...

Zure heinekoa üdürützen zaizün ebilaldia haüta ezazü, zure ahalak ontsa neürtzez. Bazter ederretzaz gozatzeari eman ezozü lehtarzuna, ez zerbaiten kausitzeari.

Hebentxe berean edirenen dütüzü segürtantxa aholküak jarraik etzazü, eginen düzü ebilaldia gozamenezkoa izan dadin, bürütik-bürü.

Begiak zabalt itzazü, bazterren edertarzünaz gozat, indarrak berritzez... Iratin zira !



Ebilaldi elibat mundororentako!

Ebilbideak tinta holli elibatekin seinalatürrik dira.

1

HARSÜDÜRRA ARTHANOLATZE

Harsüdürra eta Arthanolatze mendi tiniék ikusmen oso zabalá eskentzen deikúe, Xiberoa eta Baxenabarre gaintietarat, besteak beste. Egúndaldi eder batekila atsülütoki egitekoak diren ebilteak.

→ 6,9km ⌚ 3h 🏔️ +520m



Bidearen aldegainetik kurrizten den xendatik Bagargiako botüra baztergiala 700 metra ebiltez joan, exkerreko gaintitik eta ostatü-jatetxe kantütik igaran, eta Iratzabaletako lepoala hel. Hantik, petigora elk airekagiak jarraikitzez. Harsüdürraren tini aldepeala heltürrik, esküineko gaintiala marraztez joan, Larraineko nabaren gaintialat bista ederra eskentzen düan muino batetara heltzeko. Hortik, hegiaren harietik jarraik, Lepo Txipia igaran, eta Arthanolatze gaineala elk. Exkerreko gaintitik eraits, Iratiko etxoler eta Orhi Püntala büruz. Bidexka batetara heltürrik, hontan jarraik lehenik eta, bigerren üngüradan, xüxen eraits iraztorraren behera. Berriz ere bidexka bat atzamanik, exkerrealat har Iratzabaletako lepoala heltzeko eta hantik etxoletara arrajiteko, bidexkatik eta bidetik.

2 ORGANBIDEXKAKO HEGIA - LAPATIÑE

Hegi-hegiz, gozamen handiko ebilte bat. Üngürü hau egitez, gainti orotara badükezü ikusmen: mendi gorenetera bai eta bortü alagietara, aldegainean hegalak zabal-zabala saiak üngürükan ari diratekealarik. Begi-bazka prunki, alo!

→ 5,3km ⌚ 3h 🏔️ +255m



Bidearen aldegainetik kurrizten den xendatik Bagargiako botüra baztergiala 700 metra ebiltez joan. Hara heltürrik, aldegaineko azken etxolala büruz igan. Hontara heltü etxiñi gabe, txüt-txüta elkitzen den xenda har, Organbidexkako hegiala heltzeko gisan. Hegi honi esküineko gaintitik jarraik eta Mehatzeko lepoala eraits, bideala heltü gabe, haatik. Xüxen joaitzez, txüt-txüta elk. Hegi gaineala heltürrik, exkerreko gaintian ageri diren botxü xuri elibatetara joan eta exkerrealat jarraik, aska batetara artino. Organbidexkako hegiaren aldepatik igaran, oihanean sar eta maxelari jarraik bideala hel artino. Hontan exkerrealat hartzea aski date partigiala arrajiteko.

3

ORGANBIDEXKAKO HEGIA

Ebilte llabür honekila, Organbidexkako hegiala eta tiniala heltüko zira. Gaine horietarik, ezinagoko bista ederra dükezü, behera nahiz goiti büruz, Orhi püntaren eretzeala, besteak beste. Oihanaren gora txüt elkü beharra ez zaizü dolütüren.

→ 2,4km ⌚ 1h30 🏔️ +115m



Bidearen aldegainetik kurrizten den xendatik Bagargiako botüra baztergiala 700 metra ebiltez joan eta aldegaineko azken etxolala büruz igan. Hontara heltü etxiñi gabe, txüt-txüta elkitzen den xenda har, Organbidexkako hegiala heltzeko gisan. Hegi honi esküineko gaintitik jarraik. Haga handi elibaten kantütik igaran eta bidexka ttipi batetara hel. Hurtegi batetara artino joan eta, aitzina jarraikirik, esküineko gaintialat lehen bidexka har. Honen bazterreala heltürrik, Bagargiara arra-eraiats.

4

ZIHIGOLATZE

Üngürü ejer hau egitez, Iratiko oihanaz eta bazterretzaz heintto bat ikasiko düzü, kurrütüren beitzira hegi zabal baten gainti, zühainpetan, iraztorran, errekarren gainti, eta Zihigolatze oha ere ikusiko beittüzü.

→ 8,5km ⌚ 3h 🏔️ +385m



Hegixuriko hegialako bidexkari jarraik, etxola elibaten aitzinean igaraitez. Ondotik, behera sar, eta aintzirala heltü etxiñi gabe, esküineal atiatzen den bidexka har. Honek errekala eramanen zütü. Hau, übitik igaran ondoan, goiti büruz saihetsez jarraik. Erreka-adar batetara heltürrik, exkerrealat har Zihigolatze ohalá heltzeko gisan. Han, esküineko gaintialat har, Iratzabaletako lepoa igaran eta hantik aitzina bide harriztatüz lehenik eta bide gudronatüz gero Bagargiara arrajin. Bidearen aldegainetik kurrizten den xendatik partigiala arrajin.

Iratiko karta 3D gisan telekargat ezazü heben : www.chalets-iraty.com



SEINALEEN ERRANAHIA

- Bide xüxena
- Exkerrealat har
- Esküineal har
- Bide honetik kanpo

- Frantzia-Espainia müga
- || Lepo
- ▲ Gaine
- Bide gudronatü
- Bide harriztatü

5

IRATZABALETA

Paseiatze goxo bat zühainen axolbe eta itzalean, Iratzabaletako lepotik igaraitez.

→ 4,6km ⌚ 1h30 🏔️ +180m



Oihanean sar, ondarkin edükiantzien exkerretik igaraitez. Exkerreko gaintialat eraits, beste bidexka batetara heltzeko gisan. Esküinaldealat petigora elk, Iratzabaletako lepoa igaran eta hantik aitzina bide harriztatüz lehenik eta bide gudronatüz gero Bagargiara arrajin. Bidearen aldegainetik kurrizten den xendatik partigiala arrajin

6

ORHI PÜNTA

Ezinagoko ebilaldi ederra, hegiz-hegi kurriztez. Aro ederra behar da atsülütoki. Ebilbidea ez da seinalatürrik.

→ 15km ⌚ 7h 🏔️ +700m



Bidearen aldegainetik kurrizten den xendatik Bagargiako botüra baztergiala 700 metra ebiltez joan. Hegiaren gainti eta oso hegoaldeal büruz kurriztez, haga handi elibaten kantüan igaran, Mehatzeko lepoala hel, sortaldealako maxelaren gaintiko xendatik jarraik, aska baten kantütik. Arrazolatze ophetarik igaran eta hegoaldeala büruz ari den xenda nausian egoitez, Miragarateko lepoala petigora elk. Hantik, airekagien saihetsetik, hegi belartsüären gora elk, Zazpigain tiniala artino. Honara heltürrik, hanitzez ere hobe da botxarte baten behera sartzea aldepeko xenda batetara artino, Zazpigaineko hegiala egiazki hersi eta lanjeros beita. Xenda hortarik hegia arrabildürrik, honi jarraiki behar zaio, Orhi püntala hel artino. Arrajitea ber bidetik egiten da. Ebilte hau llabürtzen ahal da, Organbideko olha kantütik abiatzez.



Ebitera abiatü beno lehen

Partitü aitzin: Aro ikerzaleek egünaurentako zer dioen berri har eta xendak zertan diren ere galtat. Behar den bezala plantat: Ebilteko oski honak, arropa beroak eta ebitakoak, hur behar dena oro, anhoa eta sakolako telefona bat jarraikaraz.

7

HARSÜDÜRRA MENDIBEL IRATIKO AINTZIRA

Hegi eta bixkarren gainti kurriztez, üngürü honek ezinagoko ikusmen ederrak eskentzen dütü Eüska Ikurro eta hürrünaoko bazter eta bortüer büruz.

→ 18km ⌚ 7h 🏔️ +1020m



Bidearen aldegainetik kurrizten den xendatik Bagargiako botüra baztergiala 700 metra ebiltez joan. Exkerreko gaintitik eta ostatü-jatetxe kantütik igaran, eta Iratzabaletako lepoala hel, Schroth4 etxolaren gibeletik igaraitez. Iratzabaletako lepoan, xuriz eta gorritz seinalatürrik den GR 10 ebilbidea har, esküineko aldetik eta iparrari büruz badoan xendaren gora elk, muino batetara hel artino. Kürütüne batetara heltürrik (1,7 km) GR 10 xenda ütze eta hegiala büruz (iparrealat) elk. Hegalala heltü etxiñi gabe, esküineko gaintian den lehen tini bati büruz joan (sortaldealat). Hegiaren hariari jarraik, beste gaintialat büruz, hots sartaldealat, GR 10 xenda berriz kürütat, eta hego-sartaldealat Arthanolatzeren maxelala hel artino. Mendi honen hegiaren aldepeko xenda xahüenetik maxelaren gainti jarraik. Memento batez, «variante HRP» pankarta bat partüko dügü. Mendi tiniala igan, hegiaren harietik, zerrado bat igaran, eta seko eraits. Zerradoari jarraik eta ondotik hegiari, tiniala hel artino. Arra-eraiastearentako eta ondoko lepoala artino, hegiari jarraik, larre zabal elibatetarik. Maxelaren aldepeko xenda xahüenari jarraik. Xenda hortarik aitzina joaitzez beti, eta goiti joaitzearekin, oihan baten saihetsetik igaran. Azken zühainetarik landa, xenda hau ütze eta Mendibel bixkarrari büruz jo. Plaxot ttipian, esküineko gaintitik jarraik eta tiniala elk. Hegi-hegi jarraik, Burdinkurutetako lepoala artino. Bide aldepeko mehakatik aitzina joan, Iratiko aintzirala büruz. Olha baten aldepean xenda goiti elkitzen da errekarren exkerreko gaintitik (seinale holli eta berdeak). Beste olha baten kantütik igaran. Ber xendatik aitzina jo, aintzirala heltzeko gisan, Burdinkurutetako erreka artetarik traukatzez. «Garaziko etxola» ostatüala heltü eta gero, bi bide trebesat eta GR 10 xendako seinale xuri eta gorriak ediren ondoan, horier jarraik partigiala arrajin artino.

